

Gerriko berria Eguzki-sisteman

Eguzki-sistema zehatz-mehatz behatzen ari den Hubble teleskopioak ezuste berri bat eman die astronomoei. Ez da nolanhikoa gainera, Eguzkia-sistemaren azken mugatan, Netunoren inguruan eta izar nagusitik 5.000 kilometrorera, kometa-multzo berria atzeman baitu Hubblek. Aurkikuntzaren ondorioak zeintzuk izango diren ez badaki-



EEBBetako astronomoek emandako datuen arabera, Kuiperren Gerrikoaren diametroa 145.000 milioi kilometrokoa da eta 200 milioi kometa inguruk osatzen du.

gu ere, teoria asko baztertu beharra izango dela pentsa daiteke. Besteak beste, gure sistemaren azken mugatzat jotzen zen Neptunoren inguruan bestelako egiturarik ba ote dagoen galdetzen diote elkarri aurkikuntzaren berri eman duten EEBBetako astronomoek. Kuiperren Gerriko izenaz bataiatu den egitura berriak bestalde, Pluton misteriotsuaren

jatorriari buruzko argibideak emango dituela espero da. Zenbait astronomoren iritziz izan ere, Pluton ez litzateke planeta bat izango, Eguzki-sisteman zehar barreiaturik dauden kometarik handienetakoa baizik.

EEBBetako astronomoek emandako datuen arabera, Kuiperren Gerrikoaren diametroa 145.000 milioi kilometrokoa da eta 200 milioi kometa inguruk osatzen du.


Jaiotza urratsez urrats

Mundura etortzea, jaiotzea ez da zeregin erraza izaten. Ez gizakiontzat, ezta izarrentzat ere. Beheko irudiak ere, Hubble lankide finak eman dizkigu eta bertan ikus daiteke urratsez urrats izar baten jaiotza. Hubble lekuko zela sortu zen

izarrak energi igorpen handia egin zuen sortu orduko. Goian eta ezkerrean izarren hautsa dugu, sortu berria den astroaren inguruan pilotzen dena. Eskuinean berriz, izarrak 1.000 milioi kilometro orduko abiaduraz igortzen duen gas-jario indartsua jaso du Hubblek. Beheko irudia izar berriari dagokio, bere inguruan 6.000 milioi kilometroko luzera duen gas-jarioa ikus daitekeelarik. Horren ondoan, huskeria dirudite animalion nekeak!

Denbora ez da ezereen truk igaro

Are gutxiago 102 urte bete berri dituen teleskopioarentzat. Urteen joan-etorriari aurrea hartuz ordea, 1996ko irailan berritua erabilgarria izango da Britainia



Goiko irudian ikus daitekeen 102 urteko teleskopioa, Britainia Haundian egin diren aurkikuntza gehienek lekuko izan da.

Haundiko teleskopiorik zaharrena. Hori gerta dadin gogotik ari dira lanean Erret Behatoko astronomoak eta Itsas Museo Nazionalen teknikoak.

Dublinen eraiki zenetik, makina bat ezbeharrei egin behar izan dio aurre teleskopioak. Horietatik kaltegarrienak 1987an eta 1989an Britainia Haundia bortizki astindu zuten ekaitza eta erauntsia dira, urrenez urren. Istripu horien ondorioz, teleskopioaren kupula eta errotaio-mekanismoa oso kaltetua suertatu ziren. Akats horiek tartean, azken urteotan ez da apenas erabili teleskopio zaharra. Ez zen horrela gertatu mendearen hasieran, goiko irudian ikus dezakezuen tresna optikoa baita Britainia Haundian egingako aurkikuntza ia guztien lekukoa.

Goian eta ezkerrean izarren hautsa dugu, sortu berria den astroaren inguruan pilotzen dena. Eskuinean berriz, izarrak 1.000 milioi kilometro orduko abiaduraz igortzen duen gas-jario indartsua eta beheko irudia izar berriari dagokio.

